DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Kirola
Deporte

Anoeta pasealekua, 18 - Tel. 943481850 - 943481880 - udala_kirolak@donostia.eus - www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA: DONOSTIA ARENA 2016 ERABILERA ANITZEKO GUNEKO (ILLUNBE) ZUREZKO KIROL ZOLADURA DESMUNTAGARRIA EKARRI ETA AURRENEKO ALDIZ JARTZEA

1. XEDEA

Donostia Arena 2016 erabilera anitzeko guneko (Illunbe) zezen plazan zurezko kirol zoladura desmuntagarria ekarri eta aurreneko aldiz jartzea. Berdindua eta nahasketa bituminoso drainatzaile batekin (asfalto drainatzailea) bukatuta dago zezen plazako zorua.

Han jarri behar den zoladurak saskibaloian (FIBA lehiaketak) eta eskubaloian (IHF lehiaketak) maila goreneko kirol-jarduera egiteko jarrita dauden ezaugarri, betebehar eta ziurtagiri teknikoak bete behar ditu (ikus Baldintza tekniko partikularren agiri honetako 3. eta 4. atalak).

Era berean, sistema osoa behar bezala gordeta edukitzeko eta jarri eta kendu egiteko behar diren orgak eta elementuak ere ekarri behar dira, ahalik eta samurren jarri eta kendu ahal izateko tarima, azkar egiteko lan horiek eta jartzekoan eta kentzekoan ez hondatzeko. Gordetzeko orgen neurriak 1,90 m-ko altuera ez gainditzeko modukoak izan behar dira.

2. ZOLADURAREN DEFINIZIOA

Pista 44 x 22 metro izango da, gehi 24 x 2 metroko beste bi eremu alde banatan (erantsitako planoaren arabera), eta, hala, 1.064 m²-ko azalera izango du guztira. Zurezko plaka modularrez osatutako sistema izango du, eta zenbait geruzaz eratuta izango da, eskatzen diren kirol parametroak bete ahal izateko. Geruzak pieza bakoitzarekin bat eginez eta ez bereizteko moduan jarrita izan behar dira. Panelak alde guztietatik lotu behar dira, flexi-lock edo halako beste sistema batez, eta panel bakoitzek gutxienez 3 euste-elementu izan behar ditu.

Panel bakoitzak 44 mm-ko lodiera izango du, gutxi gorabehera, eta geruza hauek izango ditu:

1.- Heveako zur trinkozko akabera-geruza, gutxienez 22 mm-ko lodierakoa; Donostia hirirako behar den HC-n (Hezetasun eutsia) labean lehortuta, eta UV mailan lehortutako poliuretanozko 7 berniz geruza eta kirolerako berariaz arrastoen kontrako bernizezko azkeneko beste bi geruza emanda.

2.- 12 mm lodiko kontratxapatuko panel geruza euskarri gisa; atzeko aldea bernizatuta, uraren eta hezetasunaren aurrean portaera egonkorra izatea bermatuta izango duena.

3.- Gutxienez 10 mm lodiko indargabetze geruza (foam), kontratxapatuari itsatsita.

Egitura osoaren atzeko aldean akoplamendu sistema eta gida sistema mekanizatua izan behar du, piezak bata bestearekin lotzen eta askatzen lagunduko duena, mihiztatu ondoren piezen egonkortasuna eta finkapena bermatuko duena eta pieza horiek blokeo-sistemaren baten bidez irekitzea eragotziko duena.

Perimetroko panel guztiek arrapala bat izan behar dute buelta guztian erremate gisa, fabrikan jarrita, oinarrizko zoladura horizontalaren eta pista muntatuaren arteko desnibela gainditzeko. Perimetro horrek kirol pistara sartzea erraztuko du eta deformazioa eragotziko.

3. EZAUGARRI TEKNIKOAK

Jarritako zoladurak ezaugarri tekniko hauek izan behar ditu:

Ezaugarri teknikoa	Eskatutako balioa	Prozedura
Indarra murriztea (inpaktuak xurgatzea) (UNE14904:2006 B1, A3 taularen arabera)	% 50-55	UNE-EN 14808:2006
Deformazio bertikala (UNE14904:2006 B2, A3 taularen arabera)	2.3-3.5 mm	UNE-EN 14809:2006
Baloiaren errebotea	> % 93 ± % 3	UNE-EN 12235:2014
Errodadura karga	>1.500 N	UNE-EN 14904:2007
Marruskadura	80-110	UNE-EN 13306-4:2012
Higadurarekiko erresistentzia	≤ 80 mg	EN ISO 5470-1
Distira	< % 45	
Suarekiko erreakzioa	Cfl-s1	
Karga ahalmena	>4.000 N	EN 1533

4. MUNTAKETA ETA PRESTAKUNTZA

Zoladura-sistema lau pertsonako bi ekipamenduren bidez instalatu beharko da, gehienez ere 5 ordutan.

Pista muntatzeko behar den beste edozein osagarri ere sartu egin behar da: mihiztatzeko eta desmuntatzeko behar diren tresnak (beharrezkoak badira), jarraibide osoak eta pistaren plakak eta esku-erramintak biltzeko eta garraiatzeko behar diren kaxak, orgak edo elementuak, esate baterako.

Gordetzeko orgen neurriak 1,90 m-ko altuera ez gainditzeko modukoak izan behar dira.

Muntatu, zelaiaren erditik pistaren bi aldeetara muntatu behar da.

Lehiaketako saski mugikorrak lotzeko zuloen tapak eta zezen plazaren asfaltozko oinarrian dauden kutxeten tapak finkatzeko behar diren ainguraketa-estalkiak ere egin egin behar dira (erantsitako planoaren arabera).

Muntatu, desmuntatu, lekuz aldatu eta iraunarazteko sinplea eta erraza izateko, ez da onartuko instalatzekoan zenbait osagai elkartzea eskatzen duen konponbiderik (oinarri elastikoak, arrastelak, etab.), eta, hala, derrigorra izango da mihiztatu beharreko pieza bakoitzak kirol-zoladurarako behar diren elementu guztiak izatea, lurrunhesi gisa erabiltzen den xafla plastikoa izan ezik.

Enpresa esleipendunak sistema muntatzeko, desmuntatzeko eta biltegiratzeko behar den prestakuntza eman beharko die Donostia Kirolak zehazten dituen pertsonei edo enpresei.

5. PISTA PINTATZEA

Pista (perimetroak, azalerako zurituak...) fabrikan pintatu behar da, eta pintura zur gordinaren gainean egin behar da, UV-z lehortutako bernizezko azaleko geruzen azpian. Joko lerroak, instalazioaren/hiriaren izena eta eskatzen diren logo guztiak UV-z lehortutako berniz geruza guztien azpian inprimatuta joango dira, iraun ahal izateko.

Joko lerroak eta logoak erantsitako planoaren arabera markatuko dira. Saskibaloiko jokalekuan sartzen diren areto-futboleko eta eskubaloiko joko lerroak seinaleztatuta utziko dira, pista kirol horiek egiteko erabili behar denean zinta itsasgarriaren bidez markatzeko moduan.

6. EKARTZEKO / JARTZEKO EPE MUGA

Pista ekarri eta aurreneko aldiz jartzeko gehieneko epea (erabiltzeko prest utziko da) 10 aste izango da, kontratua sinatzen denetik hasita.

7. HORNIDURA JASOTZEA

Materiala jarri baino lehen, ekarritako materiala eskatutakoa dela (lehiaketara aurkeztutako proposamenean adierazitakoa) eta ondo ailegatu dela egiaztatuko dute kontratuaren ardura duen teknikariak eta kontratua hartu duen enpresaren ordezkariak. Ekarritako materiala ez dela aurkeztutako proposamenean adierazitakoaren ezaugarrietakoa edo elementu akastunen batzuk direla ikusiz gero, 7 egun natural izango dira ekarri beharrekoak berriz ekartzeko.

Kontratuaren ardura duen teknikaria konforme bada, libre izango da sistema jartzen hastea. Sistema jarri eta ondo geratu bada, sistema hartzeko akta sinatuko dute kontratuaren arduradunak eta enpresa hornitzaileak.

8. KALITATE KONTROLA

Kirol-pistaren erabiltzaileen erreklamazio baten aurrean, zoladura instalatu eta lehenengo urtean, Donostia Kirolak kontratua gauzatzean instalatutako edo erabiltzen diren materialen saiakuntza bat egiteko agindu dezake, zoladurak baldintza tekniko zehatzen agiri honen 3. atalean adierazitako ezaugarri teknikoak betetzen dituela ziurtatzeko. Saiakuntza horiek laborategi homologatu batek egin eta kontratuaren arduradunak onartu behar ditu. Gastuak kontratistaren kontura izango dira, esleipen prezioaren %1eraino gehienez (BEZarena sartu gabe).

2021eko ekainaren 30ean.

Kirol Instalazioen Arduraduna

Mikel Arteaga Mercader

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola